

Test galderak

1.- Ondorengo farmakoen ezaugarrien artean, zeinek adierazten digu noiz EZ den erabili behar farmako hori?

- a.- Eragina
- b.- Eragin desiragaitzak
- c.- Medikamentuen arteko elkarrekintzak
- d.- Kontraindikazioak

2.- Zer da farmako baten ERDIBIZITZA?:

- a.- Urdailean ematen duen denbora
- b.- Gorputzean ematen duen denbora
- c.- Bere odol-mailak erdiraino jaisteko behar den denbora
- d.- Gorputzetik guztiz iraitua izateko beharrezkoa den denbora

3.- Zein farmako erabiliko dugu dagoeneko eman den beste farmako baten eraginak blokeatzeko?:

- a.- Farmako antagonista bat
- b.- Farmako agonista bat
- c.- Eragin sinergikoa duen farmako bat
- d.- Eragin antialergikoa duen farmako bat

4.- Hiponatremia gertatuz gero, zein serum erabiliko genuke?:

- a.- Serum Ringer-laktato
- b.- Serum hipertonikoa
- c.- Serum bikarbonatua
- d.- Serum glukosalinoa

5.- Zein da FENTANILOaren farmako ANTAGONISTA?:

- a.- Meperidina
- b.- Metadona
- c.- Naloxona
- d.- Flumazenilo

6.- Honako farmakoen artean, zein EZ da opiazeoa?:

- a.- Kodeina
- b.- Metadona
- c.- Meperidina
- d.- Zefazolina

7.- Gaixo bat BETALAKTAMIKOei ALERGIKOA bada, honako antibiotikoen artean zein aukeratuko zenuke?:

- a.- Amoxizilina
- b.- Piperazilina
- c.- Zefuroxima
- d.- Gentamizina

8.- TEOFILINEn eragin desiragaitzen artean, zeintzuk dira ohikoenak?:

- a.- Hiperpotasemia eta goragaleak
- b.- Bronkospasmoa eta takikardia
- c.- Urduritasuna eta takikardia
- d.- Logalea eta koma

9.- Honako farmakoen artean, zein EZ da antikonbultsiboa?:

- a.- Difenilhidantoina
- b.- Fluoxetina
- c.- Azido balproikoa
- d.- Gabapentina

10.- AZENOKUMALOLari buruz, zein EZ da egia?:

- a.- Berehalako eragina dauka
- b.- Tronbosi benosa sakonean (TVPan) indikatua dago
- c.- Antibitamina K dela esan dezakegu
- d.- Bakarrik aho bidez ematen da

11.- ONDASENTRONa/ak:

- a.- 5-HT3 hartzaileen farmako agonista da
- b.- Potentzia handiko emetikoa da
- c.- Beherakoak eragin ditzake
- d.- Oso antiemetiko eraginkorra da

12.- AKARBOSA:

- a.- Intsulina mota bat da
- b.- Diabetes 1 motan erabiltzen den biguanida bat da
- c.- Diabetesa pairatzen duten gaixoak tratatzeko erabiltzen den sulfonilurea bat da
- d.- Aurreko aukera guztiak gezurrak dira

13.- MANITOLA:

- a.- Asa diuretiko da
- b.- Betablokeatzailea da
- c.- Diuretiko osmotiko da
- d.- Bronkio-zabaltzailea da

14.- Zein da lehenengo aukera moduan status epileptikoa tratatzeko erabili behar den farmakoa?:

- a.- Gabapentina
- b.- Karbamazepina
- c.- Difenilhidantoina
- d.- Etosuximida

15.- Honako aukeren artean, zein da BENZODIAZEPINEn eragin desiragaitza?:

- a.- Hiper-aireztapena
- b.- Neke-sentsazioaren desagerpena
- c.- Goragaleak eta okak
- d.- NSZaren depresioa

16.- NORADRENALINAREN eragin garrantzitsuena, zein da?:

- a.- Tentsio arteriala igotzea
- b.- Hodi-zabalkuntza eragitea
- c.- Bihotz-uzkurkortasuna areagotzea
- d.- Hipotentsioa eragitea

17.- Honako eragin desiragaitzen artean, zein EZ da NITROGLIZERINAK eraginda?:

- a.- Hipertentsio arteriala
- b.- Zefalea
- c.- Takifilaxia
- d.- Gorritasuna

18.- AINEen eragin desiragaitz ohikoena, zein da?

- a.- Hepatotoxikotasuna
- b.- Gastroerosioa
- c.- Daradara
- d.- Edemak

19.- Glukokortikoideei buruz, zein EZ da egia?

- a.- Hodi-zabalkuntza eragiten du
- b.- Antiinflamatorio indartsuak dira
- c.- Hipergluzemia eragin dezakete
- d.- Immunitate-sistema ahuldu dezakete

20.- DIMENHIDRINATOa:

- a.- Mineralokortikoidea da
- b.- Antihistamínico H1 da
- c.- Konbultsioen kontrako farmakoa da
- d.- Bronkio-zabaltzailea da

21.- Hemen daukazue zenbait mikroorganismo. Zertarako erabiltzen da batez ere BANKOMIZINA?

- a.- *Escherichia coli* tratatzeko
- b.- *Pseudomonas* tratatzeko
- c.- *Proteus* tratatzeko
- d.- SAMR (*Staphylococcus aureus* metilicilin-resistente) tratatzeko

22.- Burdina faltagatik agertzen den anemia tratatzeko, burdina ematen da aho bidez.

Tratamenduari buruz, zein da egia?

- a.- Tratamenduak luze irauten du, hilabeteak behar dira
- b.- Barauan eman behar da
- c.- Gorozkiak beltzez tindatzen du tratamenduak
- d.- Aurreko erantzun guztiak egia dira

23.- KLOPIDOGRELA, zer da?

- a.- Fibrinolitiko
- b.- Antiagregante plaketario
- c.- Antifibrinotitiko
- d.- Antikoagulatzailea

24.- Zein egoera klinikotan erabiltzen dira plasmaren zabaltzaileak?

- a.- Krisialdi hipertentsiboetan
- b.- Krisialdi konbultsiboetan
- c.- Diabetes Mellitus-ean
- d.- Hipotentsio arterialean hipobolemiarekin

25.- Honako farmakoen artean, zein da LAXANTE OSMOTIKOA?

- a.- Laktulosa
- b.- Parafina
- c.- Senosidoak
- d.- Bisakodiloa

26.- Intsulina NPH-a/ak:

- a.- Eragin motza dauka
- b.- Intsulina ertaina da
- c.- Eragin oso motela dauka
- d.- Eragin ultra-azkarra dauka

27.- Asaldatuta dagoen gaixo zahar bati zein farmako eman dezaiokegu?:

- a.- Lebodopa
- b.- Fluoxetina
- c.- Zefazolina
- d.- Haloperidol

28.- Beta-blokeatzaileak, noiz EZIN dira erabili?

- a.- Hipertentsio arteriala dagoenean
- b.- Buruko minen eta migrainen tratamenduan
- c.- Asma bronkialean
- d.- Aurreko kasu guztietan ezin dira erabili

29.- Honako farmako guztiak KALTZIOANTAGONISTAK dira BAT IZAN EZIK, zein?

- a.- Lebofloxazino
- b.- Nifedipino
- c.- Berapamilo
- d.- Amlodipino

30.- Zer da ENALAPRILa?

- a.- Bronkio-zabaltzailea
- b.- Antibiotikoa
- c.- Hodi-zabaltzailea
- d.- Antiagregante plaketarioa

31.- Hipertentsio arterialaren tratamendurako, honako farmakoen arten, zein EZ da erabili behar?

- a.- Tiazida taldeko diuretikoak
- b.- Digoxina
- c.- Enalapril
- d.- Atenolol

32.- Zer da PROPOFOLA?

- a.- Ionotropikoa
- b.- Anestesiko orokorra
- c.- Hipertentsio arterialaren kontrako farmakoa
- d.- Antipsikotikoa

33.- Honako farmakoen artean, zein erabiltzen da Alzheimer gaisotasuna tratatzeko?

- a.- Donezepilo
- b.- Pilocarpina
- c.- Atropina
- d.- Karbidopa

34.- Honako farmakoen artean, zeinek gutxitzen ditu Kolesterolaren odol-mailak?

- a.- Somatostatina
- b.- Torasemida
- c.- Koltxizina
- d.- Sinbastatina

35.- Hezueriaren krisialdia (HEZUERI AKUTUA) tratatzeko, zein farmako erabiltzen da?

- a.- Kodeina
- b.- AINEak
- c.- Alopurinol
- d.- Parazetamol

36.- Hemen agertzen dira farmakoak emateko bide batzuk. Zeinekin agertzen dira eragin desiragaitz larrienak?

- a.- Aho bidea erabiltzerakoan
- b.- Bide topikoa erabiltzerakoan
- c.- Bena-barneko bidea erabiltzerakoan
- d.- Guztiekin berdin

37.- Zer da metoklopramida?

- a.- Antibiotikoa
- b.- Ultzeraren kontrako farmakoa
- c.- Bronkio-zabaltzailea
- d.- Antiemetikoa

38.- Adrenalina eman ondoren, zein da espero dezakegun eragin desiragaitza?

- a.- Hipotentsio arteriala
- b.- Hipoxemia
- c.- Logura
- d.- Takikardia

39.- Efektu bera lortzeko farmakoaren dosia igo behar dugunean, zer garatu da?

- a.- Adikzioa
- b.- Pilaketa
- c.- Jasankortasuna
- d.- Dependentsia

40.- Tuberkulosiaren tratamenduan, zer EZ da egia?

- a.- Gutxienez 6 hilabete irauten du
- b.- Hasieran, gutxienez 3 farmako erabili behar dira
- c.- Eragin desiragaitzik ohikoena hepatotoxikotasuna izaten da
- d.- Sendaketa zaila da eta tratamendua ez da batere eraginkorra

41.- Zein da heparinaren eragina blokeatzen duen farmakoa?

- a.- Azenokumarol
- b.- Azido aminokaproiko
- c.- Protamina
- d.- Dipiridamol

42.- Beta-2 hartzaile adrenergikoak estimulatzen dituzten farmakoen eragin terapeutiko nagusia zein da?

- a.- Baso-uzkurdura
- b.- Tentsio arterialaren igoera, dopamina adibidez
- c.- Antiaritmikoa, lidokaina bezalakoa
- d.- Bronkio-zabalkuntza, salbutamol adibidez

43.- Lidokaina zer da?

- a.- Antiinflamatorioa
- b.- Antibiotikoa
- c.- Anestesikoa
- d.- Aurreko aukera guztiak oker daude

44.- Furosemidari buruz, zein EZ da egia?:

- a.- Diuretiko da
- b.- Aho bidez zein benabarneko bidez eman daiteke
- c.- Bihotz gutxiegitasun kongestiboan indikatuta dago
- d.- Hiperpotasemia eragin dezake

45.- Zein EZ da Atropina-ren ezaugarria?:

- a.- Antikolinergikoa da
- b.- Bradikardia larrian indikatuta dago
- c.- Bide parenteraletik ematen da
- d.- Epilepsian indikatuta dago